

AITZINA

Editorea: Fermin Munariz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe, 31001 Iruñea. Tfnoa, 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

KATTIN BERGARA AEK EGUNEKO ARDURADUNA

«Gure hizkuntza larrugorritan da»

Kattin Bergara saratarra aurtengo AEK egunaren koordinatzailea da. Euskarak ipar Euskal Herrian bizi duen egoeraz kezkatua agertzen den arren, baikor azaldu da heldu den igandean Saran ospatuko den euskararen aldeko jaiari dagokionez.

AEK eguna ez da Hego Euskal Herriko jendearen uholde bat izango?

Saran ez da AEK egunik egin oraindik, baina Herri Uratsen bezperak hainbat uretz han ospatzen dira. Holako jende meta elkartzea osoa da. Ipar Euskal Herriko jendeari begira. Saran izanez, uste dut etorriko direla, herri goxoa delako.

artean hautatu behar zen.

Gau- eskolei beren kandidatura aurkeztea proposatu genien. Sara prest zen eta eztabaidatu ondoren ongi atzeman genuen han egitea. Iruditzen zaigu toki egokia dela. Beste urteetako kritika toki urrunetan egiten zela izan zen.

Herriko elkarte guztiak prest izan dira lan egiteko. Aurkeztu genuen proiektua eta beren parte hartzea eskatu genien. Harrigarria izan da. Dantza elkarteak, pilota-koak... saratarrak hor dira sei hilabetetik hona, astero biltzen.

Ipar Euskal Herrian gitea inportantea da?

Bai, bai Ipar, bai Hego Euskal Herrikoei begira. Aldizkari bat atera dugu. Sara eta Lapurdi buruzko informazioa biltzen duena. Sarara helzten bazarete beraz, jakin ezazue nora etortzen zaretzen. Euskararen egoeraren inguruan. AEKren egoeraren inguruan...

Euskararen egoera gaizki dago gure artean...

Lehen Sarako gazteak biltzen ginenean gazte-txean, bilkurak euskaraz egiten genituen. Orain biltzen garelarik bertako gazteekin hori ez da posible, eta denbora oso gutxian. Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian, nire ustez AEK egunaren afixan oso ongi islatzen da. Han bi persona biluzik agertzen dira eta gure euskara larrugorritan da Ipar Euskal Herrian.

da. Beraz, denbora erdian Baionan dut eta bestea Saran.

Saratarrentzat

Iker Anaka

Kattin Bergara, saratarra ala saretarra?

Kattin Bergara Saratar eta Zugarramurditarra da. Nire ama Saran sortu zen eta aita, berriz, Zugarramurdi.

Zuretzat muga ez da garantzizkoa izan...

Ez, gure eguneroko bizi-moduan egia da muga hori ez dugula ezagutu. Beti pasatu izan gara bide tipiatik Zugarramurdira, eta lagun taldea natural-tasan osoz izan da herri honen artean, eta Bera-koekin ere bai.

AEK egunaren koordinatzaile zara, momentu batean Korrika-rena ere izan zinen. Zergatik egin zenuen salto, Saratik Baionara?

Saltoa ez dut egin (irriz), Saran nahiz oraindik, eh! Egia da lan batzuegatik ordu batzuk Baionan ematen ditudala. Baina, hala ere, Sarako gau-eskolan segitzen dut; eta AEK eguna Saran



Gaizka Iraz

ZIRTOKA



Zillardegi

Deux poids...

...deux mesures, esan ohi da frantsesez.

Norvegian, Holandan, basetxe bar erretzen baldin bada, eta egiletza-erribidiakazio politikorik egiten ez bada, erreketak hori gertakari arrunt-tako sailean jakin erazten da; auto-istripuen eta txahal buru-bikoitzen jautzen albesteekin batera. Eta alderdiek ez zaie inolako gaitzespen «politikorik» eskatzen.

Euskal Herrian ez. Hemen garaje bateko atea kiskaltua agertzen bada, gaitzespen politikoa eskatzen zaio biharamunen ezker abertzaleari, eta ez beste inori.

Ekintza gaitzesgarri arruntan kontra ere arbuioak eta madarikazioak oro eskatzen zaizkigu, Kodigoak berak sailkatzeko eta zigortzeko biderik emango ez balu bezala.

Baina ekintza politikoa gaitzesgarri larrien kontra, konde-natu behar diren frantses eta espainiar Estatu zapaltzaileak direnean, ohiko gaitzespenen eskatzaile amorratuak... mutui!

1839az geroztik gerra behar eta berriz galdu dugulako, gure lurraldean eraki diren kasernak, adibidez, hor daude zutik. Eta helburu nagusi honen arabera ar dira lanean: Auto-Determinazio eskubidea ukatzeko, indarrean legeztautako sistemari eusteko, gure herria nazioagabetzeko, euskaraz bizitzea ezinezko bihurtzeko, eta euskal abertzaletasuna hemendik eta handik galgatzeko eta funditzeko.

Baina behinola burututako konkista, edo gerozitikako ondorioak salatu behar direnean, isilik. Hots, hemen gaitzespen politikorik ozeki egin nahi baldin bada, horixe dago berraketa politikoa salagari nagusia: herri oso bati herria izateko aukera ukatzea. (Norvegian edo Holandan gertatzen ez dena, bidenabar gogoratu beharra behar bada).

Ezer gaitzetsi behar bada, okupazio franko-españolora behar da kondenuatu.

Baina honetaz, jakina... tutik ez. Eta prentsa español osoa basetxe baten kiskalketa arbujiagarriaz mintzo.

Horrek behar ginauzke harritu.

AITZINDARIAK

MARTINA IBAIBERRIAGA



ACELEK + MARTIN